

PRENTSA-OHARRA

Iruñeko Udalak eta NAEk 2.500 euroko bi sari emango dituzte, eta haurrendako libreto onenak taularatzeko aukera

Antzerki-testuen Lehiaketara gaztelaniazko zein euskarazko lanak aurkezteko epea zabalik da, abuztuaren 14ra arte

16 urte baino gehiago edukita txikiei zuzendutako antzerki-testuak idazten dituztenek, izan horiek gaztelaniaz edo euskaraz, aukera daukate beren lanak aurkezteko Iruñeko Udalak eta Nafarroako Antzerki Eskolak (NAEk) antolatzen duten HAaurrendako antzerki-testuen Lehiaketara. Abuztuaren 14a da mugaeguna lanak aurkezteko, eta egile bakoitzak hiru testu aurkezteko ahalko ditu, gaztelaniaz edo euskaraz, betiere jatorrizkoak eta argitaragabeak badira. Ezin izango da libreto bera bi modalitateetara aurkeztu, ezta jadanik estreinatu edo saritu diren gidoiak ere.

XXVII. edizio honetako irabazleentzako sariak aurreko edizioako diru-zuzkidura mantentzen dute, hau da, 2.500 euroko bi sari egongo dira, modalitate bakoitzerako bana. Saria ex-aequo emanek gero, modalitate horretan aukeratutako lanen egileen artean hainbanatuko da. Gainera, aukeratutako lanek, hasiera batean, taularatzeko aukera izango dute, saria noiz eman eta hurrengo urtean zehar.

Libretoak espazio bikoitzaz idatzita egon behar du, eta ezin du jo hurrei zuzendutako obren ohiko iraupena baino luzeago jo. Hiru ale igorriko dira, gutun-azal itxi batean eta izenorde batekin, Nafarroako Antzerki Eskolara (San Agustin k. 5, 31001, Iruña). Gutun-azal horren barruan beste gutun-azal bat sartuko da, eta bertan honako datu hauek: egilearen curriculum laburra, NANaren edo pasaportearen fotokopia eta aitorten idatzia, non adieraziko baita aurkeztutako lana jatorrizkoa eta argitaratu zein estreinatu gabea dela, eta ez duela inongo lehiaketatan saririk jaso. Gutun-azalaren kanpoaldean adierazi behar da honako lelo hau: 'Haurrendako Antzerki Testuen XXVII. Lehiaketa'.

Epaimahaia Nafarroako Antzerki Eskolak izendatuko du, eta kategoria bakoitzeko epaimahaia – euskarazkoa eta gaztelaniazkoa – hiru pertsonen osatuko dute. Testuak aukeratzeko, bestek beste honako hauek hartuko dira kontuan: kalitate literarioa, sormena, originaltasuna eta lana



taularatzeko modukoa izatea. Obraren ekoizpena garestiegia edo zailegia bada, antolakuntzak testua ez taularatzeko eskubidea hartzen du. Epaia irailean emango da.

HAURRENDAKO ANTZERKI TESTUEN XXVII. LEHIAKETA

- 16 urtetik gorakoek har dezakete parte.
- Egile bakoitzak, gehienez ere, hiru testu aurkezten ahal ditu, gaztelaniaz edo euskaraz idatziak, honako baldintza hauekin bat:
 - o Testuek jatorrizkoak beharko dute izan, argitaragabeak, eta ezingo da testu bera bi modalitateetan aurkeztu
 - o Beste edozein lehiaketatan saririk jaso gabea izan behar da.
 - o Eta inongo konpainiak –profesionala izan ala ez– antzeztu gabea.
 - o Antzezlanak haurrendako lanek izaten ohi duten iraupena izan behar du.
- Lanak espazio bikoitzaz mekanografiaturik eta hiru aletan igorriko dira, gutun-azal itxi batean eta izenorde batekin, Nafarroako Antzerki Eskolara (San Agustin k. 5, 31001, Iruña). Aipatutako gutun-azalaren barruan beste gutun-azal bat sartuko da, eta bertan honako datu hauek: egilearen curriculum, NANaren edo pasaportearen fotokopia eta aitorpen idatzia, non adieraziko baita aurkeztutako lana jatorrizkoa eta argitaratu zein estreinatu gabea dela, eta ez duela inongo lehiaketatan saririk jaso.
- Lanak aurkezteko epea abuztuaren 14an amaituko da.
- 2.500 euroko diru-sari bakarra ezarri da, modalitate bakoitzeko (gaztelania eta euskara). Modalitate bakoitzeko lan bat baino gehiago sarituz gero, sariaren zenbatekoa egileen artean hainbanatuko baita.

Iruñean, 2018ko ekainaren 1ean

